

Kostuak

Orain gure enpresak ordaindu behar izango dituen gastuei buruz idatziko dugu;

Gure enpresak zenbait kostu finko izango ditu. Lehenik, zerbitzua emateko kotxeak alokatu beharko ditugu. Horrez gain, nabe bat alokatuko dugu bertan gure bulegoa jartzeko eta bezeroekin harremana kudeatzeko. Marketina egiteko, publizitate enpresa baten laguntza kontratatuko dugu, eta horrek ere kostua dauka. Elektrizitatea eta bestelako gastu arruntak ere ordaindu beharko ditugu. Azkenik, gure aplikazioa sortzea eta webgunea mantentzea kostu finkoetan sartzen dira, beti ondo funtzionatu dezaten.

Kostu aldakor nahiko izango ditugu. Kotxeak kontsumitzen duen gasolina, prezioak gora edo behera egingo dute erabiltzen dugunaren arabera. Honekin batera kotxeen mantenimendua baita ere aldakorra izango da ditugun arazoen arabera. Aplikazioaren zerbitzu kantitatea baita beste gastu bat izango da. Gastu hauek bezeroen inplikazioaz izango da. Gero eta bezero gehiago izan gastu gehiago izango ditugu, baina hori lortzea asko gustatuko litzaiguke. Langileen soldatak ere gastu aldakorrak garrantzitsuak izango dira gure lanaren arabera ordainduko diegulako, gero eta arrakastatsua gero eta jende gehiagori ordaindu.

Izango ditugun zeharkako kostuak hauek dira; bulegoan energia eta argia erabili behar izango dugu, beste alde batetik teknologia kontsumitu egin beharko dugu eta kontsumitzen dugun energia zeharkako gastuak dira. -

Baita ere, kostu zuzenak izango ditugu, hauek zerbitzuari lotuta dauden kostuak gastu guztiak, adibidez; kotxeak eta gasolina.

Gure kostu sozialak edo kanpo kostuak honelakoak izango dira; saiatuko gara kotxe elektrikoak erabiltzen, gutxiago kutsatzeko, gainera Bilboko eremu batzuetan ezin izango ginateke sartu debekatuta dagoelako.

Gure enpresa erabat egonkortu eta gero, gure hazkundea bermatzeko espezializazioari lotutako estrategia bat jarraitu egingo dugu gure produktibitatea igoz batz besteko kostua murrizteko bezero berriak erakartzeko eta horrela ekonomia hazkuntza lortu ahal izango du.

Gure zerbitzuaren kostuak murrizten saiatuko gara bezero berriak erakartzeko, gure produktua kalitate oso onekoa izango da, baina gure nahia gure prezio merkeengatik desberdintzea da, eta denontzat eskuragarria izateagaitik.